

AZPEITIA / Ipuin kontalariak, astelehenero, bihartik aurrera, Udal Liburutegian

Haur eta gaztetxoen liburu zaletasuna suspertzeko asmoz, aurtengoan ere, ipuin kontaketak antolatu ditu Udal Liburutegiak. 21. aldia du ekimena antola-tzen, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz.

Astelehenetan izango dira, bihartik, irailaren 20tik hasita. Astelehenero adin tarte jakin bateko hurrei eskainitako saioak egingo dira, 6etan hasita. Horrela, Pello Añorga, Lupe Lekuona, Maite Franko, Mirian Mendoza eta Kontu-kontari ipuin kontalariak ikusi eta batik bat, entzuteko aukera izango dute gerturatutakoek.

Bihar, ekimenari hasiera emateko, Kontu-kontari ipuin kontalaria izango da Enparan dorretxean. Lehen Hezkuntza 1., 2., 3. eta 4. mailakoei zuzenduta dago, hau da, 6tik 9 urtera bitartekoentzat.

Antolatzaileek orduan agertzea eskatzen dute. Izan ere, berandu iritsiz gero, ezingo dute atea zabaldu, kontaketa eten ez dadin.

Egunak eta kontalariak

Behin ekimenari hasiera eman eta gero, ipuin kontaketak abenduaren 13a arte luzatuko dira. Astelehen bakoitzean adin jakin bateko hurrei zuzenduta egongo da kontakizuna. Horrela, irailaren 27an, Kontu-kontari izango da berriro baina HH5ekoi zuzenduta, hau da, 5 urtekoei. Kontu-kontarik emango dio hasiera urriko ekitaldiari ere. Urriaren 4an, HH4koen, 4 urtekoen, aurrean izango da.

Urriaren 18an, Pello Añorgaren tarteia iango da, LH 1,2,3 eta 5ekoi zuzenduta. 25ean, Maite Franko dator (HH5).

Azaroan, Maite Franco, Pello Añorga, Lupe Lekuona eta Miriam Mendoza igaroko dira liburutegitik eta saioak HH4ekoekin hasi, azaroaren 8an, HH5ekoekin jarraituko dute, 15ean, eta txandakatuz joango dira. Berriro, HH4koak, 22an, eta HH5ekoak, 29an.

Abenduaren 13an, Pello Añorgak itxiko du ipuin kontaketen denboraldia, HH4ko hurrekin. Astero, zein kontalari dagoenaren berri izango duzue lerro hauetan.